

ERREGAIK. Azken astean Espainiako hiru konpainia nagusiek gasolioaren eta gasolina mota guztien salneurriak jaitsi dituzte



PABLO S. QUIZA

LPEEK urtarilerako iragarri dituen murrizketak berriro ere gasolinak igotzea eragin dezakete.

Gasolinak 3 pezeta eta gasolioa 2 pezeta merkatu ditu Repsol-YPF konpainiak

Repsol-YPF konpainiak, gasolinaren eta gasolioaren prezioak jaitsi zuenetik, ez du prezioa jaitsi

Erredakzioa | DONOSTIA

Cepsak astelehenean erregai mota guztien jaitsierak iragarri eta 24 ordura, Repsol YPFk, Espainiako merkatuaren %45a duen konpainiak, gasolioa 2 pezeta eta gasolina mota guztiak 3 pezeta merkatu ditu gaur guerdian.

Ondorioz, BP edo Cepsarekin alderatuz, merkatuko preziorik baxuenak edukiko ditu konpainia hispaniar-argentinarrak: gasolioa 127,2 pezeta dago orain; 95 oktanoko berunik gabeko gasolina, 138,7 pezeta; 98 oktanoko gasolina, 153,7 pe-

zetan eta, azkenik, superra 149,7 pezetaraino jaitsi da.

Iragan asteko asteartean konpainia berak egin zuen beharpenaren lehen urratsa. Orduan gasolinaren prezioak baino ez zituen jaitsi, 2 pezeta, eta handik gutxira Cepsak 3 pezetan jaitsi zituen gasolinaren salneurriak.

Ostiralean BP konpainiak 4 pezeta jaitsi zuen gasolinaren salneurria. Aldaketa hauekin zerikusia izan dute azkenaldian euroak dolarrarekiko izan duen gorakadak, alde batetik, eta petrolio upelak izan duen beherapenak, bestetik.

Baina aldaketak etor litezke luze gabe berriro ere. Euroaren sendotasuna Estatu Batuetako egoera politikoak eragindako ezegonkortasunaren ondorioetako bat da eta, bertako egoera amaitze dagoela, prezioak eror daitezke berriro ere, batez ere George Bush hautagaia suertatzen bada irabazle.

Bestaldetik, petrolio upela azken astetan 33 dolarretik 27 dolarrera jaitsi eta gero, Arabiar Emirerri Batuetako eta Kuwaiteko Petrolio ministroek Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundeak urtarilean ekoizpena murriztuko dutela iragarri dute. Hala ere, Saudi Arabiako Gobernuak gogorazi zuen upela aurreikusitako 22 eta 28 dolar bitarteko eremuaren barnean dagoela.

Frantziako inflazioa %0,3 igo da azaroan

Frantziako inflazioa %0,3an igo da azaroan zehar eta urteko batazbestekoa %2,2an kokatu da atzo INSEE Estatistika Intitutuz Nazionalak iragarri zuenez. Erakundearen arabera salneurriak gora egin izana energia %1,5ean eta elikagaiak %0,7 igo direlako gertatu da, batez ere hiriko gasa %13an gora egin baitu. Urtebetean, tabakoa igo da batez ere.

Arrasateko kooperatibak Brasilgo Paranoa enpresaren %35a eskuratu du

Arrasateko Kooperatibak automobilen alorreko gaiak ekoizten dituen Paranoa enpresa brasildarraren %35az jabetu da. Sao Pauloko prentsaren arabera, MCC 2,5 milioiko zorrak ere bere esku geldiduko dira baita ere baina hurrengo bost urtetan Paranoaren %65a eskuratzeko aukera izango du bi enpresetako akordioaren arabera.

Nafarroako Orkoiengo Lucas Girling lantegiak 82 behargin kaleratu ditu

Orkoiengo Lucas Girling lantegiak 82 langile kaleratu ditu. Langile batzordeak eta zuzendaritzak ez dute lan hitzarmena adostu. Zuzendaritza plantilaren birmoldaketa egiten hasi da, langile gehiegi daudela argudiatuz. TRW taldeko enpresak balazta sistemak egiten ditu, eta 490 behargin ditu.

Baionako Auzitegiko abokatuak, greban

Baionako Auzitegiko abokatek orain hiru aste abiatu greba segitzea deliberatu zuten atzo. Frantzia mailako mogimenduarekin bateginik, diru guti duten akusatuak ofiziozko abokatuak dutelarik, abokatuak ukaiten duten laguntza judiziala gisa jasotzen duten diru saria «bikoiztea» galdegiten dute.

EAEko ekonomia 2000 urtean aurreikusitako %4,3a haziko dela dio Jaurilaritzak

Erredakzioa | GASTEIZ

Gobernu Kontseiluaren ostean, emandako prentsaurrekoan, Josu Jon Imaz Eusko Jaurilaritzako bozeramaileak aurten EAEko ekonomia %4,3 haziko dela iragarri zuen; hain zuzen, Jaurilaritzak espero zuena. «Datuok Jaurilaritzak urte honetarako egindako aurrakuspenak ontzat ematen dituzte», esan zuen Imazek. 2001 urterako aurrakuspenari dagokionez, «datuen arabera berrikusi beharko diren arren», ez da aldaketa handirik espero Imazen arabera. Datorren urterako EAEko ekonomia %4 haztea aurrakusten du Jaurilaritzak.

Jaurilaritzako bozeramaile eta Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak aurtengo hiruhilekoan EAEko ekonomia izandako bilakaeraren nondik norakoak ere azaldu zituen. Hain zuzen, EAEko ekonomia %4,3 hazi da epe horretan, urte osorako aurrakusitako berretsiz.

Imazen ustez, aipagarria da urteko hirugarren hiruhilekoan «industria sektoreak izan duen dinamismoa». Sektore hori %4,5 hazi da, urteko lehen seihilekoan %5,2 hazi ostean. Industria inbertsioari dagokionez, %4,2 handitu da.

Eraikuntza sektoreari dagokionean, hazkundea %4an mantendu da. Zerbitzuetan, berriz, hazkundea %4,3koa izan da hirugarren hiruhilekoan.

Jaurilaritzako bozeramaileak emandako datuen arabera, enpleguaren sorrerak %0,7 egin du gora eta «kalitatearen hobekuntza bat jazo da da, behin-behinekotasun tasa jaitsi eta kontratu mugagabeen kopuruak gora egin baitu». %13,6an dagoen langabezia tasa «1985etik txikiena» dela gogoratu zuen Imazek. EAEko ekonomia puntu beltza %4 inguruan dagoen inflazioa dela gaineratu zuen.

Ibarrako Udala

Ibarrako Udalak, 2000ko azaroaren 29an eginiko osoko bilkuran, Ibarrako udalerraren Antolamendurako Arau Subsidiarioetako 2. indus-trialdeari buruzko Aldaketa Zehatza egiteko dokumentua, 30 eguneko epean jendaurrean jartzea erabaki zuen. Epe hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera zenbatuko da, eta epe horretan zehar korporazioek, elkarrekin nahiz partikularrek iradokizunak eta, kasua bada, beste antolamendu alternatibak ere aurkez ditzakete.

Ibarran, 2000ko abenduaren 1ean.
ALKATEA.

IRAKASLE ETA BEGIRALE BEHARRA

1- Frantsesa emateko (Lizentziatua) amatasun baja ordezkatzeko.

2- Denbora libreko begiralea - Larunbat arratsaldetarako

Interesatuak Curriculum-ak abenduaren 18rako bidali ikastolara

IKASBERRI-AZPEITIKO IKASTOLA
Loiola otorbidea, 26
20.730 AZPEITIA
E-MAIL: ikasberri@ikastola.net
Tel.: (943) 15 12 46 Faxa: (943) 15 17 76

IRUNGO UDALA

HERRI MAILAKO KOMUNIKABIDEEN JARDUERAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

(Alkatetzak 00-11-22an hartutako erabakia).
DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIOA
Telefonora 010 deituz, e-mail bidez honako helbidera sac.010@irun.org edo Hiritarra Atenditzeko Zerbitzura (SAC) joanez.

ESKAEREN AURKEZPENEA
Hiritarrak Atenditzeko Zerbitzuan (SAC), 2000ko abenduaren 22ko 13 h. baino lehen.

SAC Udaleko gestio guztiak
010 Deitu edo kontsultatu, joan-etorriak ebitatzeko
www.irun.org 8,30-14 h. / 16,30-19,30 h. // 9,30-13h. (larunbatetan)
Juan de la Cruz, 2, kalea -Plaza Ensanche-